

**EGO EUSKAL HERRIKO ELIZBARRUTIAK:  
Apezpiku-hiriak eta bertako apezpikuak**

Apezpikua, parrokian eta elizbarrutian duen zeregin pastoralagatik, elizbarrutietako historia guztien ardatz gisa ageri zaigu.

Euskal Herriari zuzenki begiratuz, gauza batzuez konturatzeko gara: mendeetan zehar, eta mende berean ere bai, Euskal Herriaren zatiren bat bere eskumenean hartzen duten elizbarruti desberdinak egon izanaz; Euskal Herri bertako elizbarrutiak, eta bertokoak izan gabe, baina euskal lurraldearen zatiren bat bere eskumenean zuten inguruko elizbarrutiez: Kalahorra, Naiara, Araba-Armentia, Valpuesta, Iruñea, Tuteria, Baiona, Gasteiz, Bilbo, Donostia, Oka-Burgos, Santander, Tarazona, (Jaca), Dax eta Oloroe.

Historiografiari dagokionez, arestian adierazi dugu zein urri eta eskasak diren orain arteko Eliz historiaren historia orokorrak. Orohar euskal lurraldean dauden elizbarrutien historiari eza eta historia sakon eta seriorik eza nabarmena da. Hala ere azken hamarkadetan ahalegin txalogarriak egin izan dira elizbarrutien historiari buruzko gai batzuetan.

Elizbarrutien historiak edo apezpiku-hirienak eta hauetako apezpikuenak izango dira sail honetan aurkeztuko ditudan ikerketa-materialen gura.

## A.- KALAHORRA

Erromatarren garaiko Kalahorra euskalduna dugu bere apezpiku eta guzti kristau-komunitate gisa ziurtasun osoko agiriak eskaintzen dizkigun lehenengoa. Agiri ziur eta zalantzarik gabe hori V. mendez gerokoa da; baina aurretik ziurtasun osorik ez badago ere, IV. mendez gero ere kristau-talderik bazela dirudi.

### 1) Apezpiku-hiria eta elizbarrutiaren gorabehera historikoak

#### *aa. Lan historiografikoak*

Kalahorrako elizbarrutiaz dauden historia urriak kontutan izanik, M. Alamok DHGE 9 (1949) 267-327an, *Calahorra* izenburuz argitaratutakoa da oraindik ere hoberena eta osoena, laburra bada ere. Honen aurreko lanetarik, M. Risco-k *España Sagrada*-n 33. liburukian argitaratua aipatu beharko genuke, edo eta Gil González Dávila-k bere Teatro Eclesiástico-n 1647.ean dakarrena Kalahorrari buruz.

Gai orokorreko historien hutsune hau beste argitarapen mota batzuen bidez betetzen da; esaterako, Kalahorraren edo Errioxaren edo hango santuen monografiez, hauetan ezinbestekoa bait da Kalahorrako elizbarrutiaren kapitulua tartekatzea.

Beste batzuetan garai jakin batzuetako ikerketak ditugu. Esaterako, C. Groizard Coronado-k XV. mendea ikertzen du; J.A. Sánchez Diana-k askatasun-gerrako garaia, edo eta Eliz urtekarian *Diócesis de Calahorra y Santo Domingo de la Calzada* izenez datorren erreseina laburra.

Oraintsu, 1984.ean, argitaratutako bi lan ere interesgarriak dira Kalahorraren historiaz, lehenengo mendeetako historiaz batez ere: V. Espinosa, *Calagurris Iulia*, eta A. González Blanco, M<sup>a</sup> V. Escribano Paño, Il. Rodríguez de Lama eta abarrek *Calahorra. Bimilenario de su fundación. Actas del I symposium de historia de Calahorra* obran argitaratutako idazlanak.

Hala ere Kalahorrako elizbarrutiaren historia sakon eta seriorik ez dugu oraindik.

*hb. Elizbarrutiaren sorrera*

Antzinako beste elizbarrutietan gertatzen denez, kristau-elijioaren hasierak, ez dira kritika on batek eskatzen duen heinean ziurtatuak izan dokumentuen argitan. Baina kristauen eta hauen apezpikuen albiste ukaezinak ditugunean, hauek ez zirela lehenengokoak konturatzen gara, lehenagokorik ere bazela itxura guztien arabera. Hauxe da, IV. eta V. mendeetan, Kalahorrako elizbarrutiaren auzia.

Euskal Herriaren kristautzeaz aritu garenean, hain zuzen ere, Prudentzioren adierazpenak, Kalahorrako martiriak, Silbano apezpikua eta abar aipatu ditugu. V. Mendearen erdi alderantz, Silbano apezpikuaren ekintza dokumentuetan ongi oinarritua dugu eta horixe dugu Kalahorrako eliz historiaren abiapuntu ziur-ziur eta guztiz garrantzitsua.

Apezpiku honen aurretiko gainerako apezpikuez ez dugu datu ziurrik. Haietariko biri buruz iritzi desberdinak zabaldu dira:

– *Genaro, Calagurris Fibularia-ko apezpikua*

Elvira-ko (Illeberris) kontzilioan, 300-306 inguruan gutxi gorabehera, «Ianuarius episcopus de Fib(u)laria» agertzen zaigu. Fibularia izen bitxi hau, Pliniok soilik dakarrena, Kalahorra dela onarturik ere, Kalahorra izeneko zein izan zitekeen sortu zen auzia. Horrela, batzuek Ianuarius hau Loarrekoa zela uste duten bitartean, gehienek Kalahorra bertakoa zela uste dute.

Orain berriki, 1984.ean, elkarren aurkako bi iritzi agertu izan dira: A. González Blanco-k Errioxako Kalahorra ez dela dio; II. Rodríguez de Lama, ordea, eta argudio gehiago emanaz, Kalahorra bera dela frogatzen ahalegintzen da.

Eztabaida guzti honen ondoren, auzia oraindik ez dagoela garbi esan genezake; ziurtasun osorik ez dugula, alegia; baina



Ianuaris apezpikua Kalahorrako apezpiku-hiriarekin erlazionatzeko eman diren argudioak egiantz handiagokoak dira, eta hau horrela balitz, baskoien hiri hau apezpiku-hiri izango zen III. mendetik IV.era bitartean.

– *Valerianus, 400-405 inguruan*


Apezpiku honetaz ere bada eztabaidarik, zein apezpiku-hiritakoa izan zitekeen argitu nahirik batez ere; batzuek Zaragoza zela dioten bitartean, beste batzuek Kalahorrakoa zela diote. Azken urteotan I. Rodríguez de Lama-k, Valerianus hau, 400-405 inguruan, Kalahorrako apezpiku izan zela egiaztatzen saiatu da eta uste horretan tinko dagoela dirudi. Egia esan, badirudi hala izan daitekeela, baina ziur-ziur ezin jakin.

*cc. Haren historiako une garrantzitsuak*

Silbano apezpikuaren ondoren, oso albiste gutxi dugu elizbarrutiaz eta bertako apezpikuez bisigotuen garaian; alabaina kontzilio desberdinetan esku hartzen agertzen zaizkigu apezpiku batzuk: VI. eta VII. mendeetan, esaterako:

Mumius (Munius) (Toledo III, 589. urtea); Gabinius, Toledoko IV. kontzilioan 633.ean; Munius, Toledoko XII.ean 681. urtean; Eufrasius, Toledoko XIII.ean 683.ean; Wiliedeus, XV.ekoan 688.ean; Felix, Toledoko XVI.ean 691.ean.

Kalahorratik hain urrun ez dauden Tarragonan, Gironan, Bartzelonan, Lleidan VI. mendean ospatutako kontzilio eta sinodoetan Kalahorrako apezpikuak ez agertzea datu interesgarria da. Dirudienez, orduko gatazka sozio-militarrek elizbarrutiaren ohizko ekintza eragotzi egingo zuten. Esaterako, VIII. mendean arabiarrek indarrez sartzean, Kalahorrako eliz antolakundea kolokan jartzen du, kristau-bizitzaren batasuna indartuz edo sendotuz joan arren. Haren eskumen edo ingurunean beste apezpiku-hiri batzuk agertzen dira; esaterako, Oka, Valpuesta, Araba-Beleia-Armentia, Naiara; hauetaz geroago ihardungo dut labur-labur.





1046.ean gertatu zen Kalahorraren birjabetzeaz gero, bertako apezpikuek, gerora ere pixka batetan Naiaran egoitza izango badute ere, Alfonso VI.ak Kalahorra elizbarrutirik indartsuenetarikoa izatera eramango du: XI. mendearen amaieran handitu egingo da elizbarrutia Arabako apezpikutegia gehitzen zaionean.

Elizbarrutiaren buru zein hiri ote zen eztabaidak izan dira. 1221.ean (1223, 1232) Santo Domingoko kapituluak bere elizarentzat katedrale-titulua lortzen du, Kalahorrarekin batera elizbarrutiak haren izena ere eramanez: «Calahorra y La Calzada» izango du aurrerantzean bere deitura elizbarrutiak.

XIV. mendearen hasieran (1318.ean) metropoliz aldatzen da, Tarragona utzi eta Zaragozaren eskumenean jarriz. Baina XVI. mendean beste aldaketa bat gertatuko da: 1574.ean Kalahorra-ko elizbarrutia Burgosen menpeko izango da; egoera honek 1956.era arte iraungo du, elizbarrutia orduan Logroño-ko (oraingo Errioxako) probintzi mugekin bat etorriz.

Baina lehenago, 1861.etik 1862.era bitartean beste gertakari garrantzitsu hau izan zen: Kalahorrako elizbarrutiaren zatiketa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat Gasteizko elizbarruti berria sortuz. Artean eztabaida latzak izan ziren hori egoki ote zen auzitan jarriz, eta argi eta indartsu azaldu ziren elizbarruti berria sortzearen aurkako arrazoi politikoak.

## 2) Apezpikuak eta episkopologioak

Kalahorrako apezpiku batzuez eta besteez edo eta garai jakin batzuetako apezpikuez burututako ikerlanak Kalahorrako elizbarrutiaren benetako histori lanak baino ugariago dira. Hala ere apezpikuen katalogo edo episkopologio horiek egiterakoan maiz gertatzen da idazleek, beharko litzatekeen kritikasena alde batera utziz, elkarri kopiatzea eta, beraz, ikerketa zorrotz eta sakonagoak egitea behar-beharrezkoa da.

Hortaz, episkopologio desberdinak ditugu. Kalahorra eta Kaltzadako apezpikuen zerrenda osoak edo nahiko zabalak di-

tuzten XVII. mendetik XX.era bitarteko liburuak, gehienetan erreseina laburretan. Zerrenda guzti hauetatik benetan aipagarriak dira P.B. Gams-en lan bikaina eta areago oraindik Eubel-Gulik-Gaudrat-Ritzler-Sefrin taldearen lan handi goraipagarria, *Hierarchia Catholica Medii (et recentioris) Aevi* deritzona.

Iruzkin txikiren bat duten episkopologio orokorretatik, F. Bujandaren *Episcopologio calagurritano desde la reconquista de la sede en 1045*, aipa genezake; beste hauen lana ere aipagarria da: F.M. Martínez San Celedonio, E. Fernández Navarrete-S. Manteli eta J.M<sup>a</sup> Solano Antoñanzas; azken honek, kritika-sen handirik erakusten ez badu ere, hainbat apezpikuri buruzko dokumentu ugari aipatzen dizkigu.

Episkopologio orokor eta zerrenda hauetaz gainera, interesgarriagorik ere bada: hobeki landuak, Kalahorrako apezpiku desberdinen biografia zehatzagoak dakartzaten episkopologio mugatuak.

Horrela, kronologikoki, hurrenez hurren, IV. eta VII. mendeen arteko apezpikuei buruz, bereziki Silbano eta ustezko Ianuarius eta Valerianus eta abarri buruz agertu izan dira ikerlan batzuk.

XII. eta XIII. mendeetako ikerlan laburrak ere badira, honako apezpikuei hauek agertzen direlarik: Sancho Funes (+1146), Garcia (1190-1194), Juan García Agoncillo (1207-1216), Jeronimo Aznar (1238-1263), Martin García edo(?) González (1283-1286).

XIV. mendekorik ez da ageri, Joan apezpikuari buruz ohar bat edo izan ezik (1326-1346). XV. mendeari dagokionez, C.Groizard Coronado-k egindako idazlan batzuk ditugu, apezpiku-hiriaren mende horretako egoera aztertuz eta era berean Pedro López Miranda (1443-1453), Pedro González Mendoza (1453-1467) apezpikuen eta Joan Quemada (1478-1492) apezpiku laguntzailearen biografiak ikertzen dituelarik.

Lanik interesgarrienetarikoa M. Salomé Escobés-ek egin eta 1909.ean argitaratutakoa da XVI. mendeko apezpikuei buruz,



gehigarritzat dokumentazio handia duelarik. J.Cantera Orive-k Kalahorrako lau apezpikuri buruzko ohar biografiko laburrak dakartza: bat XV. mendekoa da (Rodríguez Sánchez Arévalo), bi XVII. mendekoak (Pedro González Castillo eta Pedro Lepe) eta bat XVIII. mendekoa (Diego Roxas eta Contreras).

Baina Joan Bernal Luco-ri buruz (1545-1556) gehiago idatzi izan da, Trentoko Kontzilioaren garai zailetan haren nortasun eta garrantzia azpimarratuz.

XIX. mendean sartuz gero, Francisco Mateo Aguiriano eta Gómez (1790-1813) apezpikuari buruzko ikerketa bat agertzen zaigu. Eta azkenez, XX. mendean, Fidel García Martínez (1921-1953) apezpikuari buruzko liburua.

Episkopologio hauen osagarritzat, apezpikuen heriotze eta hilobieiei buruzko lanak aipa genitzake.

## **B.- NAIARA**

Arabiarrek sartu eta euren legea ezarri zutenez gero, apezpiku-hirien artean sortu zen nahasketak, argitzen zailak diren ilununeak ekarri dizkigu, eta hauen artean, euskal inguruneko apezpiku-hiri batzuen sorrera (Oka, Araba-Armentia, Valpuesta eta Naiara) nahiko ilunpean dugu.

Hortaz, X. mendean Kalahorrakoaren ondorengotzat jotzen den Naiarako apezpiku-hiriaren berri dugu; ziur aski Naiararen birjabetzeaz gerokoa da, hots, 923.az gerokoa. Berri zehatzetara joz, 950. urtean, kartularioan ageri denez, Tudamiro dugu Naiarako apezpiku; honen aurretik Benedicto izeneko beste bat izan zitekeela dirudi.

Nafarroako erregeek (Santxo Handiak eta Garzia IV.ak), XI. mendean, Naiarako apezpiku-hiria sendotu zuten, eurek ere Naiara hautatu bait zuten egoitzatzat. Naiarako Andre Mari basilika eraikitzean (1052), oraindik areagotu egin zen garrantzi hau.



Kalahorraren birjabetzea gertatu zenean 1045 (?), hiri hau apezpiku-hiri bihurtzen da berriro, baina apezpikuari, oraindik pixka batez, Naiarakoa ere deitzen zitzaion.

Historiografiari dagokionez, arestian aipatu ditugun Kalahorrako elizbarrutiari buruzko histori lanetan eta haren episkopologikoan, *Naiarako* apezpiku-hiriaren jatorri eta garapena aztertzen duten lanak ere badirela esan behar.

### **C.- ARABA (BELEGIA-ARMENTIA)**

Arabako elizbarrutiaren antzinatea Erdi Aro urrunean oso ilunpetan ageri zaigu. Horregatik elizbarruti hau azertu gabe utzi dute hainbat historialarik.

#### **1) IX-XI. mendeetako apezpiku-hiria**

##### *aa. Lan historiografikoak*

Elizbarruti honi buruz lan serioak oso gutxi dira. Apezpiku batzuen zerrendak dira ugarietak; hauek, historialarien artean elkarri kopiatuz osatu diren episkopologio laburrak dira.

XVII. mendean badira jadanik Arabako edo Armentiaiko apezpiku-hiriaz arduraturik zeuden historialari batzuk. Hauen arteko bat dugu A. Oihenart. Gregorio Argai, 1675.ean, bere jakituria agertuz eta zabal ari da Arabako elizbarruti eta episkopologikoz, baina kritika-sen handirik gabe. Honen ondoren balio handirik ez duen B. Ibañez Echevarria-ren lana agertu zen.

XVIII. mendean hiru izen ditugu aipagarrienak: elizbarrutiaren ikerketan ahalegin handia egin zuen Rafael Floranes. M. Risco-ren lanak ere ikerketa honetan aurrerapenik ekarri zuen. Hirugarrena J.J. Landazuri dugu; dokumentazio ugaria erabiliz, lanik serioena, sakonena berak burutu zuen.

XIX. mendeko historialariek aurreko mendekoei kopiatu besterik ez zuten egin. Eta XX. mendean beste horrenbeste egiten dute F. Carreras Candi-k eta M. Alamo-k. 1927.ean Die-

go Arriluzea-k Arabako apezpiku-hiria ikertu zuen idazlan labur batetan. 1953.ean Ant. Ubieto Arteta-k, ikerlan bat argitaratu zuen Arabako episkopologiari buruz, ekarpen jakingarriak eginez. 1960.ean J. Cantera Orive-k, Fortunio apezpikuari buruzko lan monografiko bat aurkeztu zuen.

Baina ikerlanik hoberena A.E. Mañaricua-k 1964.ean argitaratutakoa da, kritika-sen zuhurrez Arabako episkopologia eta apezpiku-hiria aztertuz. D. Mansilla-k ere bi lan interesgarri argitaratu zituen 1964.ean eta 1982.ean. 1977.ean C. González Minguez-en idazlan bat dugu gai honetaz. 1970.ean B. Anaut-ek artikulu labur bat argitaratua eukan elizbarruti honi buruz.

#### *bb. Jatorria eta historia*

Arabako elizbarrutiaren jatorriaz ez dakigu ezer ziurrik; Iluntasuna ziurtasunik ezaren seinale da ezbairik gabe. Dirudenez, arabiarrek apezpiku-hiri batzuetan indarrez sartu eta haietaz jabetzean sortu zen apezpiku-hiri hau eta beste batzuk ere bai. Batzuetan, jatorri honi buruz, era guztitako iritziak agertu dira, irudimenean landurik eta batere ziurrak ez diren argudioz jantzirik.

Datu batek hauxe dio: Arabako lurraldean 876. urtean Bivere apezpikua ageri da; baina hemen dago koska: dokumentuan ez dela adierazten Bivere hori nongo apezpikua zen.

Arabako apezpikutzat bere burua agertzen duen lehenengo pertsona ezaguna Munio da 987.ean; artean hiru apezpiku izan ziren Araban. Albiste horien arabera, IX. mendean elizbarrutia jadanik eraturik zegoela dirudi; X. mendean, behintzat, ziur.

Arabako elizbarrutia ere eztabaidaz inguratua dago, Belegiako apezpiku-hiriaz eta Armentia eta Arabako titularitateaz.

Elizbarruti honen unerik garrantzitsuenetarikoa Nafarroako Sancho Handiaren erregetzakoa da, orduan sendotu eta finkatu baitzen elizbarrutia.

1052.ean Naiara-Kalahorrari lotzeko ahaleginak jasan behar izan zituen, baina bategite hori ez zen egiaz burutu Fortunioren heriotzera arte (1087), harrezkero ez baita apezpikurik agertzen Araban.



## 2) Apezpikuak eta episkopologioak

Lehen Arabako episkopologioari buruzko lan batzuk aipatu ditugu, esaterako: Risco, Floranes eta Landazurirenak, eta Ant. Ubietoren azkenengoak eta bereziki A.E. Mañarikuarenak; episkopologio nagusi hauetaz gainera, Fortunio apezpikua beren-beregi aztertzen duten lan bereziak ere burutu dituzte

Baina A.E. Mañaricua izan da Arabako episkopologia ardurarik handienaz eta erizpiderik hoberenaz aztertu duena. Risco-k 14 apezpiku, Floranes-ek 18 eta Landazuri-k 16 aipatzen dituzten bitartean, Ant. Ubieto-k eta A.E. Mañaricua-k 10 aipatzen dituzte. Batzuen berrietatik besteenetara alde handia dago; areago orain: bi historialari hauek ere apezpikuren baten izena ematerakoan ez datoz bat; Benedicto apezpikuaz dute ezadostasuna. Hau, Mañaricua-k dioenez, ez da Arabako apezpikua, Naiara-Kalahorreakoa baizik; apezpiku batzuen agintealdiaz eta dataz ere badago alderik bi historialarion artean.

A.E. Mañaricua-k ematen duen zerrenda honako hau da:

1. Bibere (876?)
2. Alvaro (881-888?)
3. Munio (937-956)
4. Munio II (984?-989)
5. García (996-1021)
6. Munio III (1024-1037)
7. García (1037-1055)
8. Vigila edo Vela (1055-1062)
9. Munio IV (1062-1065?)
10. Fortunio (1066?-1087).

## D.- VALPUESTA

Beste apezpiku-hiri batzuen sorrerako aktarik ezagutzen ez bada ere, honena bai, Joan apezpikuaren ekimenari esker.

Araba-Armentia, Naiara eta beste apezpiku-hirien antzera, Valpuestakoa ere birjabetza garaian sortua da. Apezpikuen se-



gida hemen ere gorabeheratsua da, eta IX. mendetik XI.era bitartean, Valpuestako apezpiku-hiriak etenaldiak izan ditu, Gaztelako apezpiku deritzenak Valpuesta eta Muñó-koekin txandatzan dira eta.

Elizbarruti honek bere eskumenean zituen Bizkaiko Enkarterrietako zati bat eta Arabako beste zati bat.

Apezpiku-hiri honi buruz badira ikerlan historiko batzuk. Lehenengoetarikoen artean G. Argaiz aipatu behar dugu 1675.ean eta H. Florez 1771.ean. XX. mendean, 1917.ean hain zuzen, F. Macho Ortega-ren amaitu gabeko lana aurkitzen dugu. 1935. urtean bi lan aurkitzen ditugu: bata Z. García Villadarena: *Valpuesta: una diócesis desaparecida*, eta bestea J.Sáinz Barandarena: *Valpuesta, estudio histórico diplomático*. Amaitzeko, Fr. Cantera Burgos-ek Valpuestako sorrerako aktari buruz egindako lana aipatuko dugu.

Baina Barrau-Dihigok 1900.ean eta M<sup>a</sup> D. Pérez Soler-ek 1970.ean burututako Valpuestako kartularioaren argitarapenak dira batez ere garrantzi berezia dutenak. Azken honek, 804.etik 1087.era bitarteko 78 dokumentu aurkezten ditu, ia guztiak dohain edo salmentei dagozkienak.

## E.- IRUÑEA

Iruñeko apezpiku-hiria da antzina-antzinarik baskoien erlijioaren buru.Honen hasierak antzinateko ilunpean galduak izan arren, VI. mendez gero jadanik, dokumentuen argi zitura dugu.

### 1) Apezpiku-hiria eta une historiko batzuk


#### *aa. Egoera historiografikoa*

Handia da gero Iruñekoa hain elizbarruti ospetsu eta ahogarria izanik, benetako historia zehatz eta osorik ez izatea. Gerrogo ikusiko dugunez, asko egin dutena honako hau da: episkopologioak burutu eta haietan tartekatu elizbarrutiaren historia.

M. Arigita-ren «Reseña eclesiástica» salbuespen gisa utzirik, honek historia labur bat eta gainerakoen antzera episkopologia egiten bait du, denboran garai bat edo beste hartzen duten lan historikoak aurkitzen ditugu soilik. Esaterako, IX. eta X. mendeetako; edo Iruñeko katedraleko dokumentazioaz baliaturik, P. Kehr-ek burututako XI. mendetik XIII.era arteko laburpen historiko txikia; edo Zunzunegui-ren lan interesgarria, XIV. mendeko zisma garaian elizbarrutia aztertuz; edo XVI. mendetik XIX.era bitartean elizbarrutiaren egoerari buruz apezpikuek agertzen duten ikuspegia; edo eta XX. mendeko doktorego-lanak, oraindik argitaratu gabe daudenak; edo eta gai bat edo beste jorratzera bideratutako lanak, esaterako, J. Goñi Gaztambide-k 1801.eko pazkoetakoa betetzeari buruz egindakoa eta abar.

*bb. Elizbarrutiaren sorrera eta une historiko batzuk*

Iruñea eta bascoien kristau-sorrera argitzeko datu eta agiriak urri direnez gero, J. Goñi Gaztambide-k ho-



Kalahorra Elizbarrutia 1093-1862 urte-artean.



nako hau idatzi du: «La conversión de Navarra no fue obra de santos célebres, sino de cristianos oscuros y desconocidos».

Horregatik egiantzeko hipotesietara jo ohi da. Lehenengo kristauak, Kalahorran gertatu zenez, soldaduak izan zitezkeen (euskal soldadu zaharrak?), merkatariak etab.

Haren ingurunean apezpikuak agertzen dira; esaterako, Kalahorran V. mendean ziur eta IV. mendean ere izango zirela pentsatzekoa da; Zaragozan III. mendean, etab.

589. urteaz gero bada Iruñean ere albiste ziurrik, urte horretan agertzen bait da ziur-ziur dakigun Iruñeko lehenengo apezpikua, beren-beregi bere buruari Iruñeko apezpiku-izena emanaz Toledoko III. Kontzilioko aktak sinatu zituelarik: «Lilolus Pampilonensis ecclesiae episcopus subscripsi».

Horrelako dokumentu eta gertakarietan beste apezpiku hauen izenak ere badatoz: Joan (610.ean), Atilano (683.ean), Marciano (693.ean); gero, 829.era arte ez da beste apezpikurik agertzen. Hala ere ezin daiteke esan Liliolus lehenengo apezpikua izan zenik. Hasiera hura nahiko ilunpean dago; dokumentazioa oso urria da eta egiantzeko eta logikoak diren aieruak egin daitezke soilik.

Lehenago ere garbi gelditu da VII. mendean San Amandok Euskal Herrian egindako ustezko predikuek ez dutena, historia aldetik, inolako oinarririk edo oinarririk izatekotan ere, ez batera sendorik behintzat. Nafarroaren kristautzea aztertzerakoan, Bisigotuen garaiko zalaparta sozio-politikoak eta hauek baskoiekin izan zuten zerikusia oso kontutan izatekoak dira; VIII. eta IX. mendeetan burruka, zalaparta eta gatazkak geroago eta ugariagoak ziren Iruñean, lehenengo mahometarrekin eta gero frankoekin. Horrela ez da batera harritzekoa dokumentazioa galdu izatea. Agirietan oinarrituriko episkopologia 829.ean hasten da berriro.

Gertakari garrantzitsuetariko bat kristautzearen, erlijiotasunaren eta kulturaren eragile izan ziren monastegien sorrera izan



zen. Leire, Iratxe, Irantzu, Fitero, Oliva, Urdazubi, Orreaga eta abar aipatu behar.

XI. mendean Iruñeko apezpikuek euren mendeko lurralde eta ondasun handiak zituzten; horregatik behin baino sarriago izan zituzten tirabirak eta liskarrak erregekin; 1319.ean Elizak bere mendeko jabetzak utzi egin zituen. Harez gero, erresuma eta Elizaren arteko harremanak onak izan ziren, elkarri laguntza eskainiz.

Historian zehar Iruñeko elizbarrutia metropoli desberdinetakoa izan da: hasieran Tarragonakoa; 1318.az gero Zaragozakoa; 1574.etik aurrera Burgoskoa; 1851.az gero berriro ere Zaragozakoa, 1956.ean berbera metropoli izatera iritsiz.

Mendetan zehar elizbarrutiaren mugak ere asko aldatu dira. Lehenengo mendeetako mugak ezezagunak dira, baina Hego Euskal Herriko zatirik handiena hartuko zuten ziur asko. Arabiarrak indarrez sartu ondoren, aldakuntzak izango dira. IX. mendean, Arabako apezpiku-hiria sortzean ere, aldatu egin ziren mugak, Arabak bere eskumenean izan bait zuen Bizkaia; Errioxan Naiarako apezpiku-hiria eta Aragoan Sasabekoa sortzeak ere izan zuen eraginik. X. eta XI. mendeetan Iruñeko elizbarrutia Nafarroan eta Aragoan zehar zabaldu zen. Gipuzkoako zatirik handiena ere Iruñeko elizbarrutiaren eskumenean izan zen luzaroan. Gipuzkoako eta Nafarroako zati baten eskubidea zela eta, tirabirak izan zituen mende batzuetan Baionako elizbarrutiarekin; azkenez, 1567.ean, auzitan zeuden zati horiek bereganatzea lortu zuen. 1955.ean behin betiko finakaturik gelditu ziren elizbarrutiaren mugak, muga horiek Nafarroak herri gisa zituen berberak izanik.

## 2) Apezpikuak eta episkopologioak

Apezpiku eta episkopologioei buruz ikerketak egiterakoan, Iruñeko elizbarrutiak, zorionez, historilari onak eta hainbat episkopologio ditu.

A. Pérez Goyena-k 18 orrialdetako idazlan bat du 1942.era arteko episkopologioen historia aztergai duela.

– E. Garibay-k, 1571.ean jadanik, Iruñeko 54 apezpikuren episkopologia aurkeztu zuen. Gutxi gorabehera episkopologio osoa (behar bezala dokumentuz hornitua egon ez arren); aurkezten lehenengoa izatearen meritua aitortu behar zaio.

– 1614.ean Prudencio Sandoval, Iruñeko apezpikuak *Catálogo de los obispos que ha tenido la Santa Iglesia de Pamplona...* argitaratu zuen. Ohar biografikoz eta agiri ugariz horniturik San Fermin-engandik hasirik Sandoval beraganainoko 69 apezpikuren episkopologio osoa aurkezten digu. Huts batzu izan arren, Sandoval-en episkopologikoa interesgarria da, elizbarrutiaren historia ere bide batez aztertzen duelako.

– Mende berean, hots, XVII.ean, G. Argaiz-ek burututako episkopologia balio historiko-kritiko txikiagokoa da.

– J. Moret eta F. Aleson-en *Annales del Reyno de Navarra*, bost liburukitan 1684.etik 1715.era bitartean argitaratutako lan handia eta 1766.ean birrargitaratua ere ezin aipatu gabe utzi. Nafarroaren historia honen ardatz bertako erregeak izan arren, Iruñeko apezpikutegiaren historia ere tartekatzen da, hango apezpikuen hautaketa, ekintza eta haien inguruko gertakari ezberdinen berri emanez. Kritika-lan on baten falta nabari da beste aldetik.

– J. Goñi Gaztambide-ren eskutik 1955.ean argitaratua izan arren, aipatutako haien hurrengo idatzi zen episkopologia Fermín Lubian Sos-ek (+1770) egindako *Relación de la Santa Iglesia de Pamplona, de la Provincia Burgense* da; baina eskuskribua geroago osotua izan zen. Prudencio Sandoval-ek egindako episkopologioaren osagarria da honako hau. XVI. mendetik XIX.era bitartekoa hartzen du. Argibide eta biografia berri batzu ere baditu.

– Guzti hauek baino episkopologio osoago eta handiagoa dugu hiru liburukitan 1820.ean argitaratutako Gregorio Fernández Pérez-en *Historia de la iglesia y obispos de Pamplona*. Episkopologio honetan elizbarrutiaren historia egiteko ahalegi-

na ere somatzen da; alde horretatik, jakina, ez du inola ere osotasunik lortzen, hor aztertzen ez diren gai ugari sartu beharra bait legoke horretarako.

Sandoval-en lanaz eta Moret-Alesón-enaz baliatzen da. Apostoluen garaitik abiatzen da, S. Saturnino, S. Pedroren ikasle eta Iruñeko lehen predikaria eta S. Fermin lehen apezpikua abiaburuan jarriz, XIX. mendearen hasierara arte. Gaia Iruñeko eliz historiaren 14 liburu edo gaitan bereizten du.

Kapituluak apezpikuekin izan zituen auziei buruz, ihardespen gogor eta sutsua izan zen 1826.ean, anonimo batek sua pizturik. Ignacio Rufino Fernández izenordez agertu zen honako izenburua zuen anonimoa: *Cartas críticas sobre la nueva historia de la iglesia de Pamplona, en que se demuestra con evidencia la ignorancia, la parcialidad, inexactitud e infidelidad del Historiador, sobre algunos hechos concernientes a la Santa Iglesia y su Cabildo.*

– Mariano Arigita Lasa-k Iruñeko Elizaren hiru lan edo episkopologio burutu zituen:

F. Carreras Candi-ren zuzendaritzapean egindako *Geografía general del País Vasco* delakoan M. Arigita-k Reseña eclesiástica izenburuko lana argitaratu zuen, Iruñeko apezpikuen katalogoa ardatz zuela batez ere (325-373. orr.)

Beste lan bat latinez argitaratu zuen, apezpikuei buruzko berri laburrak zituela: *Series chronologica Reverendissimorum Almae Ecclesiae et diocesis Pampilonensis Episcoporum ex authenticis monumentis et probatae notae scriptoribus excerpta, atque Excmo. et Ellmo. D.D. Josepho Lopez Mendoza et Garcia Irunienseis novissimo Praesuli dicata.*

1905.ean, Memorandum izenburuz beste lan bat argitaratu zuen *Boletín Oficial Eclesiástico de Pamplona* delakoan, honako gai hauek darabiltzalarik: a) apezpiku Iruinxemeak, b) apezpiku maila lortu zuten Iruñeko, Tuterako eta Orreagako kalonjeak, eta c) gainerako apezpiku nafarrak. Arigitak biografia zehatzak burutzen ditu, iturri onean sorrera dutenak eskuarki.



– Garai batzutara mugatutako beste episkopologio batzu ere aipa genitzake: esate baterako, José Gavira Martín-ek XI. eta XII. mendeetako apezpikuei buruz egindako lana. Lan historiografiko labur bat egin ondoren, azkenean bere datuak garai-ko dokumentu eta pergamuetatik jasoak dituela adieraziz, dagoen bibliografiaz gainera, iturriak aztertzen ditu, gero XI. eta XII. mendeetara mugatuz, Hueska, Iruñea (73-98.orr.), Roda, Zaragoza eta Tarazonako elizbarruti eta apezpikuen historia ematen digu. Iruñeko 16 apezpiku aztertzen ditu.

J.M<sup>a</sup> Lacarra-k, 13 orrialdetan, aurreko episkopologioak osatu eta haien akatsak zuzentzeko ahaleginetan, 1159-1182 bitartean Iruñeko apezpiku izan ziren sei pertsonaren albisteak eskaintzen dizkigu soil-soilik.

Angel Canellas-en ekarpena, historiografi arloan, XVII. mendera arteko apezpikuen berri ematen duen XVI. mendeko eskuskribu bat aurkeztu eta aztertzean datza.

– Baina Iruñeko episkopologioak Jose Goñi Gaztambide-rekin lortzen du unerik hoberena, bai kalitatez eta bai kantitatez. Historilari bikain eta neurritsua Goñi Gaztambide hau. Honen lan handia *Historia de los obispos de Pamplona* delakoa da; 1979.etik 1991.era bitartean, IV. mendetik XIX.era artekoa hartzen duten hamar liburuki argitaratu zituen; orain azken lau mendei dagozkien liburuki gehiago argitaratzekotan da.

Orain arte argitaratutako liburukietan, lehenagoko urteetan aldizkari ezberdinetan argitaratutako lanak biltzen dira. R. García Villoslada-k honako hau dio lan horretaz: «no estamos ante un Episcopologio, o serie de suscintas biografías de obispos, sino ante una obra histórica de grandes arrestos, en la que se estudia, con una base documental impresionante, casi toda la historia eclesiástica del reino de Navarra al hilo de sus obispos». Beraz, lan hau episkopologio soil bat baino zerbait gehiago da, Iruñeko elizbarrutiaren historia ere, hein handi batetan behintzat, bertan jasotzen bait da. *Historia de los obispos de Pamplona* delako lanaren lehen bi liburukien erreseina egin ondoren,

honela bukatzen du R.García Villoslada-k bere aipamen luzea: «Nadie busque en esta obra vistas panorámicas ni ideas generales de tipo historiográfico —no es ese el estilo de su autor ni el carácter de la obra se presta a ello—, pero todos los historiadores que deseen conocer al detalle el nacimiento, la evolución y el progreso de una diócesis milenaria, la historia de sus obispos, de sus monasterios, de sus instituciones eclesiásticas, incluso bajo su aspecto económico y en sus relaciones con el poder civil, hallarán en estas páginas una mina inexhaustible de datos y noticias, avalado todo ello con la más exacta documentación archivística, desconocida en gran parte hasta ahora».

Hala ere, lehen kapitulua, **Nafarroaren kristautzeari** dago-kiona, arin samarra da. J. Goñi-k orain arte argitaratu duen guztia eta XIX. mendeko beste apezpiku batzuri buruz egindako ikerketa monografikoak izan daitezke haren lau liburukien osagarri.

Baina episkopologio orokor hauetaz gainera, beste apezpiku batzuri buruz egindako lan monografikoak aipatu behar ditugu. Honela, honako hauen biografiak ditugu: XII. mendeko Sancho de Funes, Lope de Artajona eta Pedro de París-enak; XIII. mendeko Miguel Pérez de Legaria-rena; XV. mendeko Sancho Sánchez de Oteiza-rena; XVI. mendeko Antonio Zapata eta Mendoza-rena; XVII.eko Prudencio Sandoval-ena; XVIII.eko Melchor Angel Gutiérrez Vallejo, Gaspar de Miranda eta Argaiz eta Juan Lorenzo Irigoyen eta Dutari-renak; XIX. mendeko Arias Teixei-ro, Joaquin Xavier de Uriz eta Lasaga, eta Pedro Cirilo Uriz eta Labayru-renak; XX. mendeko José López Mendoza, Marcelino Olaechea Loizaga eta Enrique Delgado Gómez-enak.

Episkopologio eta apezpikuen monografia hauetaz gainera, histori iruzkin labur eta guzti datozen Iruñeko apezpikuen katalogo edo zerrenda batzu aipatu behar ditugu; hauen artean P.B.Gams-ena, eta bereziki Eubel-Gulik-Gaudrat-Ritzler-Sefrin-ena. Beste zerrendarik ere argitaratu izan da histori hiztegi-tan, historia orokorretan, urtekarietan eta abarretan, Tragia-rena eta beste batzurena esaterako.



## F.- TUTERA

Tuterako Elizak bere gorabeherak izan ditu, batzutan beste elizbarruti batzuren menpean egon delarik eta beste batzutan aske.

### 1) Apezpiku-hiria eta haren histori une batzu

Historiografiari dagokionez, Tuterako elizbarrutiari buruzko histori lan orokorrik ez dela esan behar. Lehenengo lan eta garrantzitsuenen artean, Vicente de la Fuente-k egindako *Las santas iglesias de Tarazona y Tudela en sus estados antiguo y moderno* dugu. Hau baino lehenago idatzitakoa izan arren, geroago argitartua izan zen beste lan bat José Vicente Díaz Bravo-ren *Memorias históricas de Tudela* da. Lan honetan lehenik kristautzeaz hitz egiten da, baina gaur egun eska daitekeen zentzu kritikorik gabe; gero historian zehar izan den erlijio-egoera aztertzen da, hango elizak, monastegiak eta abar deskribatuz. 1975. urtean, F.Zamora-k, Tuterako elizbarrutiaren historiaren laburpen txiki-txiki bat argitaratu zuen. P.Kehr-ek, ikertutako artxiboetako agirien ikuspegitik, XII. mendeko une historiko batzuren erreseina egiten du.

Gai konkretu batzuri buruzko lan laburrik ere bada.

Tuteraren kristautzeaz ez dugu ganoraz eta sakonki samar egindako lanik, J.V. Díaz Bravo-ren kapitulu laburrak irudime-nezko ideiaz beterik daude eta.

Arabiarrak sartuz geroztik, Tuterak haien eragin handia jasan du: kristauek, mahometarrek eta juduek euren erlijio-bizitza egiten zuten.

Arabiarren eskuetatik 1119.ean berreskuratu ondoren, 1121.ean, lehengo mezkita Tarazona-ren eskumeneko Andre Mariaren eliza izatera etorri zen. Tutera eta inguruaren erlijio-historia Tarazonako apezpiku-hiriari loturik dago, eta horrela egongo da mendeetan zehar, baina bitartean beste apezpiku-hiri batzu ere sartzen dira hura bere mende hartu nahirik, Iru-

ñekoa batez ere, XII. eta XIII. mendeetan, adibidez, erresumen arteko mugek gorabeherak izan zituzten eta.

Hala ere Tuterak aske izan nahi zuen, apezpiku-hiri izatera helduz; baina asmo hori 1783.era arte ez zuen lortu.

1851.ean berriro ere elizbarruti propioa izateari utzi eta Tarazonaren eskumeneko bihurtzen da, horrela 1956.era arte iraunik. Urte horretan Iruñeko arkidiozesiaren menpera pasatzen da.

## **2) Apezpikuak eta episkopologioak**

Goian aipatutako lanetariko batzutan, 61 urtetan zehar, Tuterako apezpiku-aulkian izan ziren lau apezpikuen zerrenda edo katalogoak datoz:

Francisco Ramón Larumbe (1784-1796)

Simón Casaviella eta López (1797-1816)

Juan Ramón Santos Larumbe (1817-1818)

Ramón María Azpeitia Sáenz de Santa María (1819-1844)

Hainbat argibide jakingarrirekin P.B. Gams-en lanetan eta bereziki Eubel-enetan datozen apezpiku hauen zerrendak ahaztea ez da komeni.

Ikerketarik ez dugu apezpiku hauei buruz; orrialde gutxi batzu soilik R.M<sup>a</sup> Azpeitia-ri buruz J.C.Labeaga-k idatzirik.

## **G.- LAPURDI - BAIONA**

(Ik. Karmel 1993-2, 83-100)

## **H.- GASTEIZ**

### **1) Apezpiku-hiria eta haren historia laburra**

IX. mendetik XI.era bitartean izan zen Araba-Armentiakoko apezpiku-hiriaz hitz egin dugu lehenago; deseginda gero,



noizbehinka, euskal hiru probintziekin elizbarruti bat sortzeko saioak egin ohi ziren, baina XIX. mendera arte ez zen gogo hori egia bilakatu.

*aa. Lan historiografikoak*

Euskal elizbarruti berriaren une historiografikoari dagokionez, haren lehen mendeurrena zela eta, «Victoriensia» 19 bilduman agertu zen lana aipatu behar: *Obispos en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta la erección de la Diócesis de Vitoria*; A.E. de Mañaricúa, D. Mansilla, S. Insausti eta J. Pérez Alhama historialarien lanak datoz bertan; besteak beste, aipagarria da azken honen *Estudio histórico sobre la erección de la Diócesis de Vitoria* izeneko lana.

Gasteizko elizbarrutiaren historiaren laburpen txiki bat J. Martínez de Marigorta-k argitaratu zuen. Gasteizko elizbarrutia eta eliza Erdi Haroan gaiari buruz, C. González Mínguez-ek idatzi zuen 1977.ean. Azken aldi honetan, 1988.ean, A. Zorrilla-ren lan hau agertu da: *Materiales para una estructura de la diócesis de Vitoria (1900-1930)*.

Elizbarrutiaren sorreraz, V. Cárcel Ortí-k argitaratu zuen lan bat, gai horretaz Barili nuntzioaren dokumentazioa ere barru dela. Elizbarruti honen sorreraz eta hiru herrialdeetan horrek izan zuen eraginaz, badira beste lan batzu ere.

Iraultza garaiko sei urteetan, elizbarrutiaren alde ezberdinak ikertzen dituen lana argitaratu zuen Fr. Rodríguez de Coro-k. Elizbarrutiko parrokien arteko konponketa eta mugaketei buruzko lanak, eta elizbarrutiaren barruan, Bizkaiko elizari buruzkoa ere interesgarriak dira.

*bb. Jatorria eta une garrantzitsu batzu*

Arabako apezpiku-hiria desegin zenean, elizbarrutia sortzeko gogo hiru euskal herrialdeetan antzematen zen eta horretarako saioak egin ere egin ziren; XIII. mendean jadanik, Bizkaiak ager-



Baiona Elizbarrutia.

tu zuen gogo hori Lope Díaz de Haro-ren bidez (1214-1237), baina Kalahorra asmo horren aurka azaldu zen; arrazoiatariko bat ekonomikoa zen eta tirabira horrek mendeetan iraun zuen.

XVI. mendean, Baionari Hondarribiko artzapez-barrutia eta Nafarroako iparralde kantzeko asmoz, beste saio bat ere egin zen; elizbarrutia sortu nahi izan zen Gipuzkoan; baina asmo hau ere ustel gertatu zen.

Felipe II.aren garaian elizbarrutia sortu nahi izan zen Araban, baina bertan behera gelditu zen asmo hau ere. XVIII. mendean berriro ere bero-bero zeuden eta 1780.ean erregeari arabar gotzain-hiria sortzeko eskabidea egin zioten. Eztabaida-sua ez zen itzali eta ezetza emateko arrazoirik handiena politikoa zen. XIX. mendearen erdi aldera, ordea, Araban elizbarrutia sortzea lortu zuten, behin eta berriro arrazoi politiko-



ak bitarte, Kalahorra aurka agertu arren. Aulki Santu eta Espainiako gobernuaren artean 1851.ean sinatutako konkordantuan Gasteiz apezpiku-hiri egitea erabaki zen. 1861. urtean eraikiko zen Pio IX.aren «In celsissima» buldaren bidez; bulda hau 1862.eko Apirilaren 28an Prudentzio Donearen egunez jarriko zen indarrean.

Apezpiku-hiri honen historia laburrean, unerik garrantzitsuenak errepublika garaia eta 1936.eko gerrate zibilekoa izan ziren, azken honetan apezpikua erbesteratua izan zelarik. Beste une oso garrantzitsua, Bilbo eta Donostiako elizbarruti berriak sortzeko, Gasteizko elizbarrutia zatitu zenekoa izan zen.

## 2) Apezpikuak eta episkopologioak

Mendebeteko historia baino luzeagoko episkopologio zabalik ez badugu ere, badugu nora jo, apezpikuen berri laburrak dakartzaten zerrenda batzutara, alegia. Kronologiari jarraituz, honako hauek aipatu behar ditugu: 1962.eko elizbarrutiaren boletinean datorren artikulua; J. Martínez de Marigorta-ren zerrenda osoa, eta argibide zehatzagoak ematen dituen Eubel-Gaudrat-Ritzler-Seffrin historialarien lana, baita L. Etxebarriarena ere.

Baditugu Gasteizko apezpikuei buruzko lan biografikoak ere edo eta haiekin zerikusia duten beste arazo batzuri buruz idatzitakoak. Lehenengoari dagokionez, D.M. Alguacil Rodríguez-i buruz baditugu ikerketa batzu, baita R. Fernández de Piérola López de Luzuriaga-ri buruz, Frankoren diktadurapean erbesteratua izan zen Mateo Mujika-ri buruz, eta Carmelo Ballester Nieto-ri buruz ere.

## I.- BILBO

Elizbarruti honek, Donostiakoak bezala, ia ez du historiarik, oso berria bait da; beraz, ez dugu oraindik elizbarrutiaren historia seriorik. Gasteizkoaren bibliografian badugu zerbait eliz-



barruti honi buruz. Baina A.E. Mañaricúa-k elizbarrutiaren historiari buruz egindako idazlan labur-laburra aipa genitzake eta F.X. Azaceta-k egindakoa ere bai.

Honen historiografiaz dagoen gainerako guztia arazo konkretuei buruzkoa da, eta elizbarrutia sortu aurretiko arazoei dagokiena.

Bizkaiko zatirik handiena, Iruñearen eskumenean egon zen lehenengoetan ziur aski, gero Arabako apezpiku-hiriaren eskumenean (IX-XI), eta XI. mendiaz geroztik, 1862.ean Gasteizko elizbarrutiaz bat egin arte, Kalahorraren eskumenean. Azkenez Gasteizko elizbarrutiko izatetik askatu eta bere elizbarrutia egi-tea lortu zuen «Quo commodias» buldaren bidez 1949.ean, egi-tez 1950.eko Uztailaren 1ean indarrean jarritz. Hala ere azpimarragarria da Bizkaiko mendebaldea, mendeetan zehar, Valpues-ta, Burgos eta Santandere-ren eskumenean egon izan dela.

Episkopologioari dagokionez, bost gotzain baizik izan ez di-relarik, A.E. Mañaricúa-ren eta L. Echevarría-ren zerrendak ikus genitzake. Azkenez, 1988.ean beste Gotzain baten bizitza agertu da: *Antonio Añoveros, agur jauna*.

## **J.- DONOSTIA**

Historia eta historiografiari dagokienez, Bilboko elizbarrutiaz esan dugunaren antzekoa esan genezake honetaz ere. Oraingo elizbarrutia osatzen duen lurraldeaz bada histori lanik, baina lan horiek gotzain-hiria sortu aurretikoak dira.

Elizbarrutiaren historiaz laburpen txiki-txiki bat P. Alcorta-k egin zuen. Gipuzkoako lurraldea, eliz eskumen edo jurisdikzioari dagokionez, hiru zatitan bereizirik egon zen historian zehar: zatirik handiena Iruñekoa izan zen, Hondarribia aldea Baionakoa, eta ekialderantz dagoen zatia Kalahorrakoa. 1862.ean probintzia osoa Gasteizko elizbarrutiaren eskumene-ra etorri zen, 1949.eko buldaz eta 1950.ean indarrean jarri-rik, Donostiako elizbarrutia sortu zen arte.

Hala ere aurreko mendeetan, XVI. mendean batez ere, Gipuzkoak bere elizbarruti propioa sortzeko ahaleginak egin zituen. Bere historia laburrean izan dituen lau apezpikuen episkopologioari dagokionez, P. Alcorta-k eta L. Echevarría-k eskaintzen dizkigute zerrendak.

*JULEN URKIZA*